

KOSTUAK:

Gure proiektuan edukiko ditugun kostuak honako hauek izango dira:

Hasteko, guk lokal propio bat eduki beharko dugu, gauza guztiak antolatzeko eta bezeroekin harremanetan jartzeko. Lokal hau alokatua denez, bere kostu guztiak hilabeteko 400€koa izango dira: zuzena, zuzenean ordainduko dugulako eta finkoa, beti berdina izango delako. Bertan ordenagailuak eta telefonoa edukiko ditugu, beraz, hauek ere kostu bat izango dute. Telefonoaren tarifa hilabetero 60€-koa izango da. Ordenagailuak bakoitzak 550€ko kostua izango dute. Hortaz gain, gure enpresako langileen soldata ere ordaindu beharko dugu, hilabetero 500€koa. Kostu hau zuzena eta finkoa izango da. Azkenik, gure enpresak publizitatea egin beharko du beste enpresen bidez, Internet bidez edota herriko biztanleei mazu bat bidaliz.

KOSTUEN ETA GASTUEN ARTEKO ALDEA.

Ordenagailuak: 550€ x4= 2.200€

Telefonoa: 60€ x12 (hilabete)= 720€

Lokala: 400€ x12 (hilabete)= 4800

Argindarra: 35€ x12 (hilabete)= 420€

Publizitatea: 50€ x12 (hilabete)= 600€

Soldatak: Hasieran taldekideok ofizinan egongo gara dena kontrolatzen eta gure enpresaren funtzionamendua aurrera doala, soldata jasoko ditugu.

Langileak jornada erdikoak izango lirajteke eta txanda ezberdinak egongo dira 24 orduetan zerbitzuak eskaini ahal izateko: goizean, arratsaldean eta gauean. Kontratatuak izango ditugun langileek 500€-ko soldata jasoko dute hilero. Hasteko 30 langile izango ditugunez beraz soldatetan 15.000€ galduko ditugu urtero.

Lehenengo urteko gastuak 23.7400€ izango dira.

Bezero guztiek ez dute berdin ordainduko gure zerbitzua jasotzearen truke. Izan ere, batzuk eguneko kuotak ordainduko dituzte, beste batzuek hilabete bakar bateko, besteek 3 hilabete edota 6 hilabete eta gainerakoek urte osoa.

- Eguneko kuota 10€koa izango da edozein zerbitzu mota dela eta.
- Hilabeteko kuota 50€
- 3 hilabeteko kuota 150€
- 6 hilabeteko kuota 300€
- Urte osoko kuota: 500

Hilabetean 30 bezero izango bagenitu 1500€ lortuko genituen hilabetero, beraz urtean 18.000€ irabaziko genituen.

Gainerako irabaziak beste enpresatik jasoko ditugu beraz gure diru sarrerak handitu egingo lirajteke.